



EUSKAL KULTURA-ONDAREAREN BALIABIDEAK DIGITALIZATZEKO DIRU-LAGUNTZAK

Eultura eta Hizkuntza Politika Sailak euskal kultura-ondarea osatzen duten baliabideak digitalizatzeko, edo katalogatzeko eta digitalizatzeko proiektuen deialdia sustatu du, Euskarianaren bidez, hau da, Euskal Kulturaren Leiho Digitalaren bidez zabaltzeko.



<https://www.euskariana.euskadi.eus/>

Ohiko galderak

Nork har dezake parte?

Euskal kultura-ondareko baliabideen titular diren pertsona fisikoak eta erakunde publiko edo pribatuak, baldin eta obrak jabari publikokoak badira, obra zurtzak badira edo dagozkien ustiapen-eskubideak badituzte.

Zer katalogatu edo digitalizatu daiteke?

Euskal kultur-ondarea osatzen duten funts bibliografikoak, argazkiak, grabatuak, marrazkiak, ikus-entzunezko materiala, mapak, planoak, kartelak eta prentsa. Ez daude barne artxiboetako funtsak.

Katalogatuta dauden baina digitalizatu gabeko baliabideak **digitalizatzeko** proiektuetan aurkez daitezke (betiere jatorriz digitalak ez badira). Baliabideek, aldiz, deskribapenik ez badute, **katalogatzeko eta digitalizatzeko** proiektuetan aurkeztu ahal izango dira.

Proiektuak behar bezala definituta egon behar dira, gutxienez inbentario batez lagunduta. Inbentario horretan digitalizatu edo katalogatu eta digitalizatu nahi diren baliabideak zehaztuko dira, bai bolumenari eta baita edukiari ere erreferentzia eginez.



Zenbat proiektu aurkez daitezke?

Eskatzaile bakoitzak gehienez ere **bi** proiektu aurkeztu ahal izango ditu, tipologia berekoak edo desberdinak.


Nola kalkulatu proiektuaren zenbatekoa?

Proiektu bakoitzaren aurreikusitako gehieneko zenbatekoa 20.000 €-koa izango da.

Gutxienerako balioa, aldiz, ez da honako hau baino txikiagoa izango:

- **2.500 €** digitalizaziorako
- **5.000 €** katalogazio eta digitalizaziorako

Kalkulua egiteko, ifrentzuko taulak erabili daitezke; bakarra digitalizazio-proiektuetarako, edo biak batuz katalogazio eta digitalizazio proiektuetarako.



Kalkulu-taulak

DIGITALIZAZIOA		
BALIABIDE MOTA		ZENBATEKOA (BEZa barne)
Testu-materialak		0,71 €/pág
Argazkiak eta material grafikoa (marrazkiak, grabatuak, kartelak...)		1,04 €/img
Formatu handiak (> tabloide), diapositibak, negatiboak, beirazko plakak		1,42 €/img
Soinu-dokumentuak	Kaseteak	12,10 €/ud
	Arbelezko diskoak	52,03 €/ud
	Kartutxoak, zinta magnetikoak	72,60 €/ud
	Beste audio-euskarriak: alanbrezko-hariak, argizarizko zilindroak, disko zulatuak, pianola biribilkiak...	90,75 €/ud
Ikus-entzunezkoak	Bideokaseteak	0,72 €/min
	8 mm bideofilmak	2 €/min
	16 mm bideofilmak	3,5 €/min



KATALOGAZIOA		
BALIABIDE MOTA		ZENBATEKOA (BEZa barne)
Testu-materialak: monografiak, argitalpen seriatuak, eskuizkribuak...		11,61 €/registro
Testu-materialak. Katalogazio analitikoak		1,21 €/registro
Material grafikoak: kartelak		7,26 €/registro
Material grafikoak: argazkiak, grabatuak, marrazkiak...		2,42 €/registro
Soinu-dokumentuak		11,61 €/registro
Soinu-dok. Katalogazio analitikoak		8,47 €/registro
Ikus-entzunezko dokumentuak		11,61 €/registro
Ikus-entzun. Katalogazio analitikoak		8,47 €/registro

Zeintzuk izango dira proiektuak baloratzeko irizpideak?

Batez ere, honako proiektuak baloratuko dira:

- **Euskal kultura-ondareko baliabide** gisa balio iraunkorra dutenak, euskara erabiltzeagatik, Euskal Herriari buruzkoak izateagatik, EAEaren barruko edo kanpoko euskal erakundeek sortuak, edo euskal kulturaren eremuan ezagunak diren pertsonak/erakundeek sortuak izateagatik.
- **Antzintasun** handiko errekurtsok dituztenak, **kontserbazio-era ahulean** edo desagertzeko zorian, **soinu eta ikus-entzunezko euskarri magnetikoei** (kaseteak) arreta berezia jarriz, beren zaharkitzea dela eta.
- **Egile** edo erakunde **bakar batek** sortutako baliabideak biltzen dituztenak, edo gai bati buruzko **multzo bateratua** osatzen dutenak.
- **Eskari** handia dutenak, bai publiko orokorraren aldetik, bai talde espezifikoaren aldetik ere. Era berean, baliabide horiek hezkuntza-, prestakuntza-, ikerketa- edo euskal-kulturako bestelako inguruetan aplikatzeko modukoak.
- Hain murriztaileak ez diren egile-eskubideen **lizentziak** proposatzen dituztenak.
- **Genero-ikuspegia** integratu edota **emakumeek euskal kultura-ondareari** egiten dioten **ekarpena ikusaraztea**.
- Aurreikusitako **aurrekontuaren** gehienekotik gertuago daudenak.

Zinta magnetikoak digitalizatzearren premia

Ikus-entzunezkoen artxibo-komunitatearentzat **premiakoa da euskarri magnetikoetan dagoen edukia digitalizatzea**. IASaren arabera (Soinu eta Ikus-entzunezko Artxiboen Nazioarteko Elkarte), «2030erako edozein euskarriren digitalizazioa, baita baliabide magnetiko ohikoenak ere, Artxibo gehien ahalmenetik kanpo egon daiteke».

Nola gauzaten da proiektua?

Euskadiko Liburutegi Digitaleko Zerbitzuak baliabideak lekualdatzeko, katalogatzeko eta digitalizatzeko kontratatutako enpresa profesional baten bidez gauzatuak ditu proiektuak. Horiek **Euskarianaren** atarian (www.euskariana.euskadi.eus) zabalduko dira, bai baliabideak zuzenean kargatuta, bai OAI-PMH bidez bilduta. Gainera, onuradun bakoitzak **disko gogor bat** jasoko du emaitzarekin.

Harremanak



<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/euskadiko-liburutegi-digitala/>



euskadikoliburutegidigitala@euskadi.eus



945 01 68 42